

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi**

Aukera onena, agian azkena

Greba bat pasa eta ate joka dugu berria. Bi deialdiak mundu mailakoak izan dira eta, bat, emakumeen greba, ikusgarri errotu da Euskal Herrian. Bestea berriagoa da, ezezagunagoa agian, baina ez garrantzi gutxiagokoa. Greta Thunberg neskato suediarrek piztu du txinparta, eta agian, agian, sute ikaragarri bat ekar dezake, krisi existentzial baten aurrean matxinada global bat. Oxala horrela balitz! Klima aldaketaren aurrean ekintzarako irrintzi bat, altxamendurako dei bat egin du, mundu mailan abiada oso handian indartzen ari den gazteen greba baten forman. Hitzordua: martxoak 15, ostirala.

Narratiba labur eta sinplea garatu du kanpaina horrek, arrakasta duten kanpaina orok ezinbesteko duten oinarria finkatuz. Gutxi-asko honela dio: «Erregai fosilen konpainiek, haien irabaziekin gizentzen diren oligarkek eta oligarkek erosita dituzten politikariek mundua kaos klimatiko batera eramanez dute. Baina oligarka horiei aurre egingo diegu, gure indarra mugimendu handi eta politikoki arriskutsu bat sortzeko erabiliko dugu, erregai fosilen ekonomia gaindituz, gizakien eta beste bizidunen biziak aurrera egin ahal izateko baldintza egokiak sortzeko. Giza-kion bizi ez delako negoziagarria, ezin delako diruaren truke aldatu. Oraindik jaio ez diren belaunaldiak gure belaunaldiaren eskubide berdinak izan behar dituztelako».

Euskal Herriatik begiratuta, gizatasuna ardatz, mugimendu horrek hauspoa behar du. Hondamendia ekiditeko gure aukera onena, eta agian azkena, delako. Izan ere, gobernatzen gaituztenen axolagabekeria eta aurkakotasuna ikusita, baita belaunaldi zaharra- goen pasibotasuna ere, klimaren deskonposizioak eta kolapso ekologikoak saihetsezinak dirudite, bai. Baina gazteen ekintza global horrek, urgentsia moralak eta kontserbazio senak elikaturikoa, esperantza ez dagoela betirako galduta komunikatzen du.

Hala ere, (euskal) gazteek biziko duten errealitateak okerrera egitea oso aukera erreala da. Jada martxan da hondamendia: intsektuen populazioak gainbehera to- talean daude, animalien masazko desagertzea, suteak, lehortekak, bero kolpeak, uholdeak... Krisien eta katastrofeen konbergentzia bizi dugu, alegia, hondamen- diak ez dira soilik aldi berean ematen, elkar konposatu eta anplifikatu egiten dira. Hazkunde ekonomikoa jainkotuta, kontsumoa biderkatuta, jaio gabeko belau- naldiak kontuan hartzeke, hori da utzi diegun mun- dua.

Agian teknologiak eta politikak, edo bien arteko kon- binazioen batek, hau guztia gehiegizkoa dela erakuts dezakete. Agian ez gaude kondenaturik, agian soluzio- ak etor litezke. Baina, jakina, ez dago horren inongo bermerik. Klima aldaketaren ukatzaileak ez dira arazo- aren aurrean neurriak hartzea geroratzen dutenak bai-

Krisien eta katastrofeen konbergentzia bizi dugu. Hondamendiak ez dira soilik aldi berean ematen, elkar konposatu eta anplifikatu egiten dira

no hobeak. Eta gero zinikoak daude. Hementxe bertan lotsagabe askoak, klima aldaketa kezka dutela esan eta zaborrak erraustea baino ideia hobeagorik ez dutenak.

Aldaketa klimatikoaren aurkako borroka ez da zien- tzia hobe edo argudio inteligenteagoak izatearekin lotutako auzia. Botere kontua da, planeta frijituko duen negozio eta hazkunde eredu bat bermatzen duen botere kontua. Eta botereak ez du ezer ematen eskaki- zunik ez badago, ez du inoiz egin, ez du inoiz egingo. Aldaketa sozialaren axioma da hori. Euskal Herrian eta Euskal Herriatik, merezi du mugimendu global horri bultzada ematea. Gu, planetan bizi den ugaztun sozial goren, ezin gaitezke elkar ikusteke, besteen negar, ga- rrasi eta eskakizunak entzuteke bizi. Gure geroak beti egon direlako lotuak. Eta egun, inoiz baino gehiago. •